

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Ostirala, 2013ko ekainaren 28a. IX. urtea. 2.619. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Amasa-Villabonan San Fermin egunez hasiko dira atez atekoarekin

Galder Azkue alkatea Tolosaldea Txukun plataformak deitu duen galdeketa-formularekin «kezkatuta» agertu da; Tolosaldea Txukunek, berriz, normaltzat jo ditu irregulartasunak **03**



Atzo aurkeztu zuten Erronka egitasmoa, Tolosan. HITZA

Kilometroak festarako Erronka egitasmo berria prestatu dute

Gazteei zuzendua da, eta Kilometroak egunean Gipuzkoako ikastola bakoitzak talde bat izango du; talde lana eta abilezia izango dira jokoan **02**



ASERMAZ

→ **Txikienek emandako hasiera.** Herriko txikienek eman zieten atzo hasiera Asteasuko San Pedro jaiei. Haurren eguna izan zen, eta lehiaketak, puzgarriak, bazkaria, karaokea,... izan zituzten. Sorgina jaitsita, igandera bitarte festa giroa izango da, eta gaur, kuadrillen eguna izango dute. **05**

Tolosaldetik Donostiarako autobus zerbitzuan, hobekuntzak

Tolosatik Donostiara ordu erdiro zuzeneko autobusa izango da, geldialdia eginez Amasa-Villabonan **04**

Ehun auto inguru elkartuko dira bihar, Ibarako plazan

III. Maskarreras ekimenak auto zaleak elkartuko ditu; egun osoko egitaraua prestatu dute **07**

Gay, lesbiana eta transexualen eskubideen alde egin du Tolosako udalbatzak

Kolektiboaren aldeko bandera zintzilikatuko dute asteburuan; gaur euren nazioarteko eguna da **06**



Gaztetxoek tarte berezia izango dute KMK egunean, Erronkaren bidez

Gipuzkoako ikastola bakoitzak talde bana izango du, talde lana eta abilezia eskatuko dituzte probetan

Itzea Urkizu Tolosa

Uda ondoren, urriaren 6an Tolosan ospatuko duten Kilometroak festan, egitasmo berritzailea izango da aurtien lehenengoz, eta gaztetxoak izango dira, bertan, protagonista. Erronka izena hartu du proiektuak, eta Laskorain ikastolako antolatzaileek aurtengo KMK jairako zehazturiko helburuei begirakoa da: «Zirkuitu dinamikoa nahi izan dugu hasieratik, eta horra iristeko bideetako bat da Erronka», azaldu du Unai Igartuak. Honez gain, gazteen droga eta alkohol kontsumoa zaintzeko, aurtien bereziki zehaztu eta landuriko helburuetara ere begiratuko dute Erronkarekin.

14 eta 16 urte bitarteko gazteak izango dira Erronka aurrera eramango dutenak, eta Tolosan izango da egitasmoa, urriaren 6an. Lehia taldekakoa izango da, ordea, eta maiatza osoa baliatu dute Laskoraingo kideek, proiektua Gipuzkoa osoan aurkezteko.

Horrela, Gipuzkoan DBH maila eskaintzen duten 24 ikastolako ikasleei erronka bota diete Laskoraingo neska-mutilek, ikastola bakoitzak talde bana sordezan. «Jada 20 taldek eman dute izena, eta Kilometroak egunean protagonista izango diren ehunka taldeez gain, milaka izango dira Erronka bizi, animatu eta bultzatzen», gaineratu du Aitor Elduaiezen.

Aipatzekoa da, talde bakoitzak 8 kide izan beharko dituela, eta



Lokotx biltze bertikala egin zuten aurkezpenean; KMK egunean, Zumardiaundian izango da. HITZA

beste bi lagun ere izendatu beharko dituzte, azken orduan aldaketaren bat egin behar izanez gero; erdiak neskak izango dira, eta beste erdiak mutilak.

Erronkako ibilbide eta probetan gaztetxoak gidatu eta aholkuak emateko, kapitainak ere

Ikasbidaia finantziazteko 2.000 euroko saria jasoko dute irabazleek

izango ditu talde bakoitzak; kapitain bat ikastola horrekin zerikusi zuzena duen norbait izango da, eta beste kapitaina, berriz, herriaren ezaguna den norbait izango

da. Modu honetara, Laskorain ikastolako antolatzaileek argitu dute jada, Edurne Pasaban izango dela, Tolosako taldearen garraiatetako bat; bera da, hain zuzen, protagonista, Erronkako azken bideoan.

Gazteen abilezia, gakoa

KMK 13ko antolatzaileek nabarmendu dutenez, «Erronkako probak zorrotzak izango dira oso: estrategia, taldean lan egitea, buruz azkarrak izatea, indarra izatea, erabakiak hartzeko ahalmena nahiz eskulanetan trebeak izatea beharrezkoa izango da».

Hau guztia azpimarratu dute, izan ere, Kilometroak egunean ibilbidean barrena hainbat proba

egin beharko dituzte Erronkako parte hartzaileek. Baltsak eraiki eta Oria ibaia behera jaistea izango da bata; burbuila erraldoi batean sartu eta Berazubi estazioan oztopotun lasterketa egin beharko dute gero; lasto fardoen gainean kapitaina garraiatuz ere beste lasterketa bat egin beharko dute San Blas auzoko zelaiaetan; laugarren proban mosaikoa memorizatu eta eskala erraldoian berregin beharko dute Iurreamendiko zelaiaetan; azkenik, lokotx-biltze bertikala egin beharko dute, Zumardiaundi gaineko autobideko zubiaren zutabeetan gora eskalatuz.

Egindako esfortzuaren truke, Erronkako irabazleentzat izango da saririk, eta Ahora! bandera eskuratzen duen lehen taldeak dirutan jasoko du saria: «2.000 euro irabaziko dituzte, ikasturte amaierako bidaia finantziazteko»; Tolosa & Co elkartearen eskutik, txartelak ere banatuko dizkiete, dendetan erabiltzeko.

→ Laburrak

Udako ordutegia, kultur etxean eta liburutegian

IBARRA > Ibarrako Kultura eta Gazteria Sailak, kultur etxea eta liburutegia udako ordutegian direla jakinarazi du. Horrela, beraz, uztailaren 30era bitarte, liburutegia 09:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara izango da zabalik. Kultur etxea, berriz, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara zabalduko dute. Aipatzekoa da, abuztuan itxi egingo dituztela biak.

Tortura sistematikaren disko aurkezpena

TOLOSA > Tortura sistematika taldeak disko aurkeztuko du, bihar, Tolosako San Esteban auzoan. *Todos Somos Culpa-bles: Live & Demo Collection 84-85* du izenburutzat, izan ere, 1984 eta 1985 urteetan aritu zen taldea; grabaketak disko batean bildu ditu Truco Esparrago zigiluak. Aurkezpena 19:00etan izango da, eta ondoren Belarmiñak taldearen emaldea ere izango da.

Arsenal txapelketako partidak asteburuan

TOLOSA > Tolosako Arsenal elkarteak sanjoanetarako antolatutako areto futbol txapelketako partidak asteburu honetan izango dira. Bihar, 09:00etatik 20:30era, benjamin eta alebilen partidak izango dira Usabalen. Igandean, berriz, finalak jokatuko dituzte, 09:00etatik 13:00era.

Elkartasun txapelketa izango da asteburuan

TOLOSA > Futboleko, Elkartasun txapelketa izango da asteburuan. Bihar, 10:00etatik 14:00etara, Tolosa-Venta de Baños norgehiagokak izango dira, alebilen mailan. Igandean, berriz, finalak izango dira Tolosa eta Venta de Bañosen artean, Usabal kiroldegian, 15:00etatik 19:00etara bitarte.

www.inmosalbide.com



Aia. Baserrria berritu berria. 125m2-ko bi solairu ditu. 25 m2-ko terraza. Terrenoa, 110.000m2. 50.000.000 pezeta.

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 24.500.000 pezeta.

Bergara. Askarruntz auzoa. Guztiz berritua: bi logela, diseinuzko sukaldea, berokuntza sistema gasarekin. 150.000euro!.

Donostia. Amara-Amezketak kalea 3 logela, 2 bainugela eta terraza. Igogailua eta gasa. Zazpigarren solairua. Izkina. Ezin hobe. 59.898.960 pezeta.

Iraeta. Etxe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. Prezio berria: 35.000.000 pezeta.

Zarautz. Azken Portu. 92m2 ditu. 4 logela, terraza, trastelekua eta igogailua. Erreforma behar du. Prezio berria: 54.000.000 pezeta.

Zarautz. SALBIDE. 3 logela, 2 bainugela, terraza, trastelekua eta garaje itxia. Oso egoera onean. 75.000.000 pezeta.

Zarautz. Itxasmendi. 3 logela eta 2 bainugela. Erreforma behar du. 41.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 · 20800 Zarautz · Tel.: 943-01 07 00 · Mug.: 665-71 85 96



Hernialdeko Udala

IRAGARKIA

Udalbatzak hasierako onarpena eman dio Hernialdeko Hiri Antolamendurako Plan Orokorriari eta bere Ingurumeneko Eraginaren Ebaluazio Bateriauari, 2013ko maiatzaren 8an eginko bilkuran.

Halaber 2 urtez gehienetako eratako onarpen, baimen eta lizentziak emateko eremu hauetan: lurzoru urbanizagarri diren 1, 2 eta 3 sektore berrietan eta lur ez urbanizagarri guztian gaur egun indarrean dagoen planeamendurekin bat ez datorrenean.

Hori ikusita, espedientearen berrogeita bost egunetan jarriko da jendaurrean, erabaki honen azken argitalpena kontuan hartuz, hurrengo lan egunetik kontatzen hasita.

Epe horretan dokumentazioa eskuragarri egongo da aztertu nahi duten guztientzat, eta dagozkion alegazioak egin ahal izango dira.

Hernialden, 2013ko ekainaren 26ean

ALKATEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Alokagai. 80 m2 eta 2 logela dituen etxebizitza alokatzeko aukera dago Iruran. Interesa duen edonork, 636 530 000 telefonozenbakira dei dezake informazio gehiago eskuratzeko.

Bidegoian eta Tolosa, Herriarteko finalaren bila

Beste hainbat pilota txapelketa ere jokoan izango dira eskualdean, tartean Su-Berri Txapelketako finalak

I. Garcia Landa

Tolosa eta Bidegoianek Herriarteko Pilota Txapelketako finalerdien bigarren jardunaldia jokatuko dute, bihar, 18:30ean, Bidaniako frontoian. Norgehiagokan Tolosa aurretik doa, 2-1 irabazi baitzuen Bidegoiani Beotibarren jokatutako neurketan. Pilota partidekin batera, pintxo potea egongo da, 2014an Bidania-Goiatzen ospatuko den Eskola Txikiaketa Festaren alde.

Bestalde, HITZA Pilota Txapelketa bigarren fasean sartu da. Benjamin A mailan gaur jokatuko dituzte partidak hiru herritan, Berastegin, Larraulen eta Albizturren. Hiruetan 19:00etan hasiko dira partidak. Benjamin B mailan gaur, Villabonan, 19:00etan jokatuko dira partidak, eta Tolosan, bihar, 10:30ean. Infantilen mailan Altzon jokatuko dituzte partidak, etzi, igandea, 10:00etan hasita. Kadete mailako pilotariak datorren asteartean, uztailak 2, jokatuko dituzte partidak, Bidegoianen, 19:00etan hasita.

Su-Berri Txapelketa

Irurako Ametsa trinketeen jokatzen ari den Su-Berri Txapelketa amaierara iritsiko da asteburu honetan. Bihar, 15:30etatik aurrera, lehen mailako zein promozio mailako finalerdiak izango dira ikusgai. Finalak berriz, etzi joko-

tuko dira, 11:30ean hasita. Bi finalen artean, Lur-Lan baserriko produktuez osaturiko saski ederra zozketatuko da. Goi mailako partida ikusgarriak aurreikusten dira eta bertaratzeko asmoa dutenek Euskal Herriko emakume pilotari onenen jokoaz gozatzeko aukera izango dute.

Alegiako III. Pilota Txapelketa

Bigarren finalerdiak jokatuko dira, bihar, Alegiako III. Pilota Txapelketan. Jaialdia 19:30ean hasiko da eta lehenengo partidak kadeteak ariko dira, Iturbe-Salegi eta Oiarbide-Aizpuru elkarren aurka. Bigarrengoan nagusien txanda izango da eta bertan lehiatuko dira Artola-Tolosa eta Azpiz-Arratibel bikoteak. Finalak uztailaren 13an izango dira, 18:00etan hasita.

Hiru leitzarrak, sanferminetan

San Fermin Torneoan parte hartuko dute Leitzako hiru pilotari profesionalak. Jon Jaunarenari aukera eman diote onenen artean jokatzeke, eta atzelari moduan Zubietza izango du. Barriolak, bere aldetik, Irujo izango du bikotekide torneoan. Bengoetxeak Beginorekin batera jokatuko du.

Bestalde, egun Berrobin bizi den Patxi Ruiz pilotari ohia omenaldia egingo dio Asegarce San Fermin egunean, eguerdian.

Barriolak eta Bengoetxeak partida garrantzitsuak izango dituzte asteburuan ere, Nafarroako Lau t'erdiko Txapelketaren finalerdiak izango baitira jokoan. Bengoetxeak Olaizola II.aren aurka jokatuko du bihar, Mungian; Barriolak Irujoren aurka jokatuko du, etzi, Zarautzen.



Galder Azkue, Ibai Iriarte eta Unai Erroizenea, Lehiberri zentroan egindako agerraldian. I.G.L.

Tolosaldeak Donostiarekin lotura hobetuko du autobus bidezko garraioan

Tolosatik Donostia zuzeneko zerbitzua izango da ordu erdiro, Amasa-Villabonan geldialdia eginez

Imanol Garcia Landa

Tolosaldeak, zehazki Tolosak eta Amasa-Villabonan, Donostiarekin duten autobus bidezko lotura izan diren aldaketak aurkeztu dituzte. Zuzeneko zerbitzua indartuko da, ordu erdiro izango baita Tolosatik abiatuz eta Amasa-Villabonan bakarrik geldituz Donostiaraino zuzeneko autobusa. «Bost minutu gehiagoko bidaia izango da, baina maiztasuna izugarri handituko da. Tolosatik ordu laurdeno autobus bat aterako da», zehaztu du Ibai Iriarte Tolosaldea Garatzeneko lehendakariak eta Tolosako alkateak.

Bigarren hobekuntza Donostiako ospitaleen eremuarekin izango den lotura da. «Bertako

langileek eta erabiltzaileek egingo dako eskaera izan da», zehaztu du Iriartek. «Orain arte Donostiako ospitalera joan nahi zuen orok, hiriko erdigunera joan behar zuen eta bertan autobusez aldatu. Zerbitzuaren aldaketarekin egunero sei aldiz iritsiko da ospitalera, eta beste zerbitzuetan Errekalden geldiuera egingo dute, bertan autobusez aldatzeko aukera izateko». Ospitaleen guneetatik itzulitzeko bost autobus izango dituzte erabiltzaileek Tolosalderantz etortzeko.

TSST autobus konpainiak ematen duen zerbitzuaren aldaketa horiek uztailaren 1etik aurrera jarriko dira martxan. Iriartek azaldu duenez, aldaketa horiek «zerbitzu publikoa bultzatzen» da eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eskerrak eman dizkio, «elkarlanean gure ekarpenak jasoz egin dituztelako aldaketak». Iriartek gaineratu duenez, «zerbitzu publikoa indartzearrekin jasangarritasunean pauso bat ematen dugu, eta jendea animatzen dugu garraio publikoa erabili dezaten, gero eta jende gehiagok erabili, orduan eta zerbitzu hobetua eman ahal izango dugulako».

Galder Azkue Amasa-Villabonako alkatea ere agerraldian izan da eta autobus zerbitzuaren aldun-

diak egindako aldaketak eskertu ditu: «Badira urte batzuk gure herria eta Donostia zuzenean lotuko lituzkeen zerbitzua izateko eskaera dagoela herritarren partetik, eta orain zerbitzu hori martxan jarriko denaren berri eman dezaiegun». Herritarren behar horiek betetzeko moduko zerbitzu bat diseinatzeagatik ere eskertu dio aldundiari.

Tolosaldekoa, urte amaieran

Unai Erroizenea aldundiko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko zuzendari nagusiak esan duenez, zerbitzuaren aldaketekin «aldunditik berretsi egiten dugu garraio publikoaren alde egiten ari garen apustua». Eguneroko mugikortasunean «herritarrek dituzten beharrei» erantzuten dute aldunditik neurri horiek. «Eskualde bakoiko eta eskualdeen arteko mugikortasun beharrei lehentasuna eman behar zaie», gaineratu du Erroizenea.

Tolosaldearentzat aldaketa horiek «garrantzitsuak» direla esan du Erroizenea. «Epe luzera ere garrantzitsua izango da, Tolosalde barruko emakida berriari dagokionez. Uztaila eta abuztua bitartean proiektua onartu eta lizitazioa martxan jarriko da, eta urte bukaerarako zerbitzu berria martxan egon beharko luke».

ESTACION DE SERVICIO ARRIARAN, S.L.
LARRAMENDI, 28; 38 posta kutxa
20400 TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL. (943) 67.48.28 - FAX. (943) 67.49.82
www.arriaran.com

AVIA

Soterramenduko obrak dirauen bitartean

ABANTAILA HOBERENETAZ BALIATU ZAITEZ!!!

UZTERRE KALEA
DONOSTIA S.S.
GASTEIZ-VITORIA
SAN JUAN PLAZA
LARRAMENDI KALEA
TOLOSA

ALDI BATERAKO SARBIDEA
ARRIARAN GASOLINDEGIA,
NORABIDE GUZTIENTARA
JOATEKO AUKERAREKIN
ACCESO PROVISIONAL A LA
EST. ARRIARAN, CON
POSIBILIDAD DE
ACCEDER A TODAS
LAS DIRECCIONES

TXARTELEKO
DESKONTUA
%50AN
GEHITU

+

GARBI EZAZU ZURE KOTXEA
DOHAIN
ARRIARAN GASOLINDEGIAN
GASOLINAZ HORNITUZ GERO

*OHARRA: Informa zaitzez promozio honetat Arriaran gasolindegian.

Mauka
berria

GAURKO ESKAINTZA

Zure futboleko baloi ofizial gustukoena aukeratu!

Prezioak
22€ futboleko baloi
8€ Realeko mini baloi

Futbol home
Estacion Kalea, 5
Irur 20301 GIPUZKOA
Tel. 943-61 73 76
info@futbolhome.net
www.futbolhome.net

www.mauka.eu

berria
taldea

Asteasuko kuadrillek jaietako egun handia ospatuko dute

Sorgina atzo jaitsi zuten asteasuarek; egunean zehar haurrek euren eguna ospatu zuten, bazkari eta guzti

Asier Imaz Asteasu

Asteasuko jaietan kuadrilla eguna ospatuko dute gaur, eguerditik aurrera. Lehenik eta behin, mahaiaren inguruan eseri, eta elkarrekin bazkalduko dute. 18:00ak inguruan altxako dira mahaitik, Incansables txarangaren doinuekin. 19:30ean ikurrinaren aldeko ekitaldiaren txanda izango da, ondoren berriro mahaiaren bueltan esertzeko. Kasu honetan, herri afariaren egingo dute kuadrillek. DJon-en musikarekin emango diote egunari amaiera.

Bi txupinazo

Asteasuko jaien barruan bi txupinazo bota zituzten atzo, lehena, haurrei zuzendua, eta bigarrena,

Sorginaren jaitsiera iragartzeko bota zutena.

Goizeko txupinazoarekin batera haurrak korrika hasi ziren, izan ere, Haurren Krosa une horretan hasi zen. Parte hartzaile guztiei dominak banatu ondoren, mahaiak eta aulkiak ipini, eta marrazten jarri zituzten Asteasuko txikiak. Bi lehiaketa hauen ondoren, frontoiko ateak zabaldu zituzten. Bertan, puzgarriak, dantzarako makina, zezena... zain zeuden. Korrika batean sartu ziren pilotalekura txikiak, eta 14:00ak arte bertan egon ziren jauzika eta dantzan. Nahikoa izerdi bota ondoren, bazkaria eta sari banaketa ekitaldien txanda iritsi zen. Makarroien eta oilaskoaren ondoren, berriro frontoira, haur parkean arratsaldeko saioa egitera. Txikienei zuzendutako egitaraua ez zen hor amaitu, gaztetxoekin batera, karaokea jarri baitzieten arratsaldean. Pilota partiden amaieran etorri zen Sorginaren jaitsiera, eta atzoko bigarren txupinazoa.



Haurren Krosa irabazi zuten asteasuarek euren saria jaso zuten bazkalorduan. A. IMAZ



Marrazki Lehiaketako irabazle nahiz partaide guztien lanak karpan zintzilikatu zituzten. A. IMAZ



Asteasuko frontolan haur parkea jarri zuten, puzgarri eta guzti. A. IMAZ



San Pedro jaien lehen egunean, haurren egunean, txikienei bazkaria eskaini zitzaizen. A. IMAZ



Ekainak 28, ostirala -KOADRILEN EGUNA-

14:30: Kuadrillen arteko bazkaria
18:00: Incansables Txaranga
19:30: Ikurrinaren aldeko ekitaldia
21:30: Herri afaria, ondoren DJon

Ekainak 29, larunbata -SAN PEDRO EGUNA-

10:00: Diana 11:00: Meza Nagusia, ondoren, Elizmendir, Hamaiketako, Soka Dantza eta Pelota Eskolako Txapelketako finalak
18:00: Musika jaialdia
19:00: Herriko musikarien kalejira
19:30: Esku pelota
Gauetan Rock Kontzertuak:
Lauroba + Glaucoma Sound System

EKAINAK 30 Igandea -JUBILATUEN EGUNA-

11:00etan: Meza
ondoren herriko jubilatuentzat hamaiketako
12.30etan: Sagardo dastaketa eta Patata tortilla txapelketa
13:00etan: Herri Kirolak
14:30etan: Jubilatuen Bazkaria
18:00 Herri Kirolak Asteasuko taldeen artean ondoren Erromeria



**Asteasuko
Udala**

Sexu joera eta identifikazio ezberdinen normalizazioa bultzatuko du Tolosak

Gay, lesbiana eta transexualen nazioarteko egunaren harira konpromisoak onartu ditu Tolosako Udalak

Eneritz Maiz Tolosa

Gay, lesbiana eta transexualen eskubideen nazioarteko eguna da gaur. Hori dela eta, aldarrikapen egunarekin bat eginez, gay, lesbiana eta transexualen eskubideen aldeko bandera zintzilikatuko da Tolosako kultur etxean, eta asteburu guztian mantenduko da.

Honez gain, Tolosako Udalak bat egiten du kolektibo honen borrokaekin, eta diskriminazioaren aurkako politika aktiboak sustatzeko konpromisoak onartu

zituzen, asteartean egindako osoko bilkuran. Bildu, Aralar, EAJ eta PSE-EE udal taldeek honako ekimenak aurrera eramateko erabakia hartu dute: politikoki onartzea eta babestea lesbiana, gay, transexual eta transgeneroen eskubide eta askatasun publikoen defentsa. Horretarako, diskriminazioaren aurkako politika aktiboak sustatuko dituzte, sexu joera eta identifikazio ezberdinen normalizaziorantz; eta daudden aurreiritzi eta estereotipoak gainditzeko jarrera irekia garatuko dute.

Honez gain, «homofobia, lesbo-fobia eta transfobiaren aurkako informazio eta sentsibilizazio kanpainak» sustatuko ditu, «herriarren kontzientzia solidario berri bat sortu eta jarrerak aldatu daitezen». Hirugarren puntuan,

prestakuntza programak eta hezkuntza planak jarriko dituzte herriko ikastetxe, kale hezitzaile eta gazte topaguneen eskura, aipatu taldeetakoak diren pertsonak ez baztertzeko, eta ikasleek beren identitate, afektibitate eta sexualitatea osotasunean gara dezaten. Honela, «beren bizitza proiektuak nahiz eskubide guztiak oztoporik gabe gozatzeko bermatuko litzateke».

Udal komunikazioetan berrikusteko eta kontrolatzeko hizkuntza inklusiboaren erabilera berrikusteko konpromisoa ere onartu dute. Izan ere, «argitaratzen diren testuen eta irudien bidez transmititzen dira harreman eta praktika heterosexualeen estereotipoak», zehaztu dute udaltzako alderdi guztiek onartutako mozioan.

Herrira-k iheslarien azken atxiloketak salatu ditu

Azken ostiraleko elkarretaratzeak izango dira gaur; Tolosan, giza katea egingo dute, eta ondoren, afaria Oargin

E. Maiz

Azken ostiraleko bezala, euskal preso eta iheslarien aldeko elkarretaratzeak egingo dituzte gaur, Herrira-k deituta. Bada, Herrira-tik iheslarien aferaren konponbidean «urrats eraikitzailea» eman zela iragan ekainaren 15ean Miarritzen adierazi dute, baina, Espainiako zein Frantziako gobernuek iheslariak atxilotuz, «bide beretik» jarraitzen dutela salatu dute.

Bestalde, Tolosan, elkarretaratzea 20:00etan egin ostean, giza katea egingo dute, eta gero afaria izango da Oargi elkartearen.

↓ Azken ostirala

GAUR

Aduna. 20:00etan.
Alegia. 19:30ean.
Altzo. 20:00etan.
Amezket. 19:30ean.
Anoeta. 19:30ean.
Asteasu. 19:00etan.
Berrobi. 19:30ean.
Berastegi. 19:30ean, herriko plazan.
Bidegoian. 19:00etan Goiatzeko autobus geltokiaren aurrean.
Ibarra. 19:30ean.
Irura. 19:30ean, plazan.
Gaztelu. 19:30ean, plazan.
Ikaztegieta. 20:30ean.
Leitza. 20:00etan, Lopenen.
Leaburu. 20:15ean.
Lizartza. 20:00etan.
Tolosa. 20:00etan.
Villabona. 20:00etan.
Zizurkil. 20:00etan.

Aitor Aldalurrek Lleidan jokatu du datozen bi denboraldietan

Mikel Iraola Tolosa

Aitor Aldalurrek Tolosarrak Lleidan jokatu du hurrengo bi denboraldietan. Realeko harrobian hazi eta hezitako futbolariak, duela bi urte eman zion amaiera talde txuri-urdineko ibilbideari eta orduz geroztik Amorebietan jokatzearitu da. Talde bizkaitarrarekin maila ona eman eta hainbat talde garrantzitsuren arreta piztu du Aldalurrek.

Pasa den denboraldian, Amorebietak lehenengoz bigarren B



Aitor Aldalurrek, Lleidan. HITZA

mailan jokatzeko zuten denboraldian, bigarren mailarako igoera fasea jokatzeko lortu zuten denboraldi ona egin ostean, nahiz eta ondoren ez zuten saririk lortu.

Aurten, berriz, seigarren izan da. Bi urte hauetan, Intxaurraga entrenatzaileak hasierako hamakakoan sartu izan du.

Erakutsitako mailak bide berriak ireki dizkio. Athletic Bedotako Eibar taldeen eskaintzak jaso arren, Lleidara bidaiatzeko hautua egin du 21 urteko gazteak, eta bertan izango da bi urtez. «Askok pentsatutako erabakia» izan bada ere, «oso pozik» da Aldalurrek. «Kalitate jauzi bat da. Lleidak aurten apustu garbia egingo baitu bigarren mailara igoetzeko».



Manifestazioa egin zuten, ibarran, Aranalderen atxiloketa salatzen. A. IMAZ



harpidedun izateak badu saria irabazleak

1 Zabala sagardotegia Sagardo kaxa bat

Garagartza baserria • Aduna
Tel.: 943-69 07 74 • www.rzabala.com

• Patxi Etxaniz (Anoeta)



Saridunek etxean jasoko dute.

2 Txindokiko itzala Bi lagunentzat bina sarrera

Larraitx • Abaltzisketa
Tel.: 943-10 43 67 / 628-94 72 53

• Manoli Jauregi (Alegia)
• Ines Olarra (Tolosa)



Eskaera egiteko, bi hilabete.

3 Donostiako Aquariuma Bi lagunentzako bina sarrera

www.aquariumss.com

• Javier Azkue (Alegia)
• Juan Belauntzaran (Areso)



Saridunek bina sarrera leihatilan, bi hilabetez.



Pasa den urteko topaketan, autoak San Bartolome plazan. ENERITZ MAIZ

Autozaleen topaleku izango da bihar, Ibarako plaza

«Prestaturiko» 100 auto inguru elkartuko dira III. Maskarreras ekimenean; musika eta zozketak ere izango dira

Iñigo Terradillos Ibarra

Autoak gogoko dituztenen topaleku bilakatuko da Ibarako plaza bihar. «Prestaturiko» 100 auto inguru jarriko dituzte bertan, eta horiek ikustearrekin batera, musika eta zozketak izango dira. *maskarreras.com* webguneak antolatutako III. KDD Maskarreras ekimenaren barruan kokatzen da Ibarako topaketa.

09:00etan hasiko dira autoetako jabeak euren *altcorrak* bertan aparkatzen. Aurtengoan, 100 auto inguru osatuko dute erakusketa. Antolatzaileak «oso gustura» daude, urtetik urtera parte hartze kopurua handituz joan delako: «Lehenengo urtean 50 auto elkartu ziren, iaz 70, eta aurtengoan 100 inguru izango dira; Ibarako plaza bete-beterik egongo da, be-

raz, oso pozik gaude», azaldu du Egoitz Prieto ekimenaren sustatzaileak. Gainera, parte hartuko duten auto bakoitzaren bi edo hiru lagun etortzea Ibarara espero dute, ondorioz, jende ugari bilduko da plazan.

Autoek badute komunean ezaugarri bat, guztiek abiadura eta indar handia ematen dizkien zaldi ugari dituztela: «Prestaturiko» kotxeak dira, bereziak, eta era askotarikoak, klasikoak izan daitezke edota baita rallyetakoak ere». Era berean, ekimenaren parte hartuko duten autoetako jabeak ere badute komunean ezaugarriak, guztiek dituztela oso gustuko autoak.

Antolatzaileak «oso gustura» daude, parte hartzaileen kopurua handituz baitoa urtero

Autoen erakusketarekin batera, DJek jarritako musika izango da entzungai plazan, eta zozketak ere egingo dituzte bertaratzeko diren artean. Halaber, kamisetak

ere jarriko dituzte salgai, eta aterako dirua Minbiziaren Aurkako elkarteari laguntzeko bideratuko dute.

Bazkalordura arte plazan egongo dira, eta ondoren, Alegia joango dira bazkaltzera. 150 lagun inguruk parte hartuko dute bazkarian, eta arratsaldean Tolosako Karting-era joango dira. Han, elkarren arteko lehiak izango dituzte, eta irabazleentzat sariak banatuko dituzte.

Prietok azaldu duenez, «Ibaran autoekiko afizio handia dagoelako» hasi ziren duela hiru urte ekimena antolatzen. «Mundu honetan ibiltzen direnak elkar gehiago ezagutzea eta ingurukoak ez direnek herria bera ere ezagutzea da helburua». Hala, autoak gustuko dituzten oro animatu dute parte hartzera.

Ekitaldietan parte hartu nahi dutenek edota ekimenaren inguruko informazio gehiago eskuratu nahi dutenek *maskarreras.com* webgunera jo dezaketa edo *kdd@maskarreras.com* helbidera idatzi.

• **ibaraldea@hitza.info**

Uztailaren 4an egingo dute, gazteen etxebizitzaren zozketa

Ibarako Euskal Herria kaleko 18an kokaturiko eraikinaren beheko lokalean izango da zozketa, 19:30ean

I. Terradillos Ibarra

Datorren ostegunean, uztailaren 4an egingo dute Euskal Herria kaleko 18an kokaturiko gazteentzako etxebizitzaren zozketa. 19:30ean hasita egingo dute, eraikinaren beheko lokalean, eta ondoren etxebizitzak ikusteko aukera izango da.

Ibarako gazteentzako alokairuko zuzkidura etxebizitza onar-

tuen eta baztertuen zerrenda iragan maiatzaren 21eko gobernu batzordean onartu zuten. 32 etxebizitza dira orotara. Bi etxebizitza ezintasunen bat dutenentzat dira, baina, kasu honetarako ez da eskaerarik izan. Beste bi etxebizitza seme-alabak edo adinekoak euren kargura dituztenentzat dira. Horiek bi gelakoak dira, eta kasu honetarako hiru eskaera izan ditu udalak. Gainerako 28 etxebizitzak gela bakarrekoak dira, eta hauetarako 53 eskaera izan dira.

Zozketa bidez etxebizitzaren bat egokitzeko zaien ibararreko bost urtera arteko epean izango dute bertan alokairua ordainduta bizitzeko aukera.

Joseba Otaegik ezin izan du Aitzol Atutxaren aurkako lehia gairiditu

I. Terradillos Zizurkil

Hernanin atzo jokatu zuten Urrezko Aizkora txapelketaren bigarren jardunaldia, eta Aitzol Atutxa egungo Bizkaiko txapel-dunaren eta Joseba Otaegi Gipuzkoako txapeldunaren arteko lehia bizkaitarrak irabazi du. Zizurkilgoak, beraz, ezin izan ditu bere lehen puntuak batu. Atutxak bi minutuko aldea atera zion Otaegiri.

Bestalde, etzi, igandean, Arabako Ondategi herrian jokatu dute Urrezko Aizkolarien hurrengo jardunaldia, 12:30etik aurrera. Ugaitz Mugertza mutrikuarra eta Jon Rekondo leitzarra ariko dira nor baino nor.

Taldeakako Giza Probako Txapelketari ekingo dio Berrobik bihar

I. Terradillos Berrobi

Gipuzkoako Taldeakako Giza Probako Txapelketako hirugarren jardunaldia jokatu dute bihar, Orioko plazan, 18:00etatik aurrera. Kasu honetan, A multzoko taldekideak lehiatuko dira, hau da, Berrobi, Orio, Mendaro eta Deba. Multzo honetako bigarren jardunaldia uztailaren 13an jokatu dute Mendaron, ordu berean hasita. Puntu gehien duten dituzten bi taldeak igaroko dira abuztuaren 4an Aian jokatu dute finalera.

B multzoko bi jardunaldiak jokatu ostean, Aiztondo eta Urretxu sailkatu dira finalera, eta Zizurkil kanpoan geratu da.

◉ Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

-LURTEURRENA-

XIKER URRETABIZKAIA GURRUTXAGA

1995-11-03an jaio eta 2012-06-28an hil.

"Mina ez, oinazea tantaka dugu hitz bakoitzaren orain, oroitzapenekin jositaz sendatu behar zauria"

ALTAMIRA

JUAN MANUEL IZAGIRRE IRIGOIEN

Aspaldiko legea berritzera goaz, zuk hasitako bidean gu gabilta orain zuk utzitako hitzekin maiteko dugu elkar.

Zure ilobak

Haren animaren alde, otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezela, GAUR OSTIRALA arratsaldeko ZAZPIETAN Tolosako KORPUS KHRISTI parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik mila esker.

Helbidea: Sarrola baserria **TOLOSA**, 2013ko ekainaren 28an



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leizaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altxo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarra, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrau, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunkoia: Bengoe-
txea, E. Kale Nagusia, 7.
Telefonoa: 943 67 06 48.
Gauekoa: Aizpiroz, L. Amaro
auzoa, 9.
Telefonoa: 943 67 5118.

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Ara-
lar kalea, 43. Telefonoa: 112.

BIHAR, EKAINAK 29

■ **Tolosa.** Egunkoia eta gaue-
koa: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2.
Telefonoa: 943 67 01 28.

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Ara-
lar kalea, 43. Telefonoa: 112.

ETZI, EKAINAK 30

■ **Tolosa.** Egunkoia eta gaue-
koa: Etxebeste, J.M. Gernikako
arbolaren lorategiak, 3.
Telefonoa: 943 65 10 40.

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Ara-
lar kalea, 43. Telefonoa: 112.

ETZIDAMU, UZTAILAK 1

■ **Tolosa.** Egunkoia: Bronte, C.
Korreo kalea, 20.
Telefonoa: 943 67 60 13.
Gauekoa: Santamaria, I. Nafa-
rroa etorbidea, 2.
Telefonoa: 943 65 46 10.

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga ka-
lea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain
hartzen egunkarian adierazita-
ko esanen eta iritzien erantzuki-
zunik.

Agenda

GAUR

JAIK

■ **Leaburu.** Herriko jaien ba-
rruan, 16:30. Txupinazoa.
17:00. Zirko tailerra umeentzat
eta ondoren, txokolatada.
20:15. Azken ostiralaren barne-
an ekitaldia. 21:00. Barrikotea
eta sagardo dastaketa, Iker Zu-
beldia eta Anjel Mari Peñagari-
kano bertsolariek alaituta.
00:00. Musika festa batzordea-
ren tabernan.

■ **Areso.** 18:00. Herriko eskea
trikitilarietara. 21:30. Lagunarte-
koen afaria.

■ **Urkizu.** Txupinazoa eta kan-
paiak San Pedro jaietako hasiera
emanez, eta 21:30ean, III. Alur-
txiki mus txapelketa, elkartean.

MUSIKA

■ **Tolosa.** Tolosandblues musi-
ka jaialdiaren barruan, Back
Tracks taldea, 22:30ean, Euskal
Herria plazan. 00:00etan, Naco
Goñi, Fronton kafetegian.

BIHAR, EKAINAK 29

JAIK

■ **Asteasu.** 10:00. Diana. 11:00.
Meza nagusia, ondoren Eliz-
mendir hamaiketako eta so-
kadantza. 12:00. Asteasuko pi-
lota eskolako txapelketako fi-
nalak: aurrebenjaminen mailan
Beñat Fernandez-Ugaitz Be-
launzarán; eta benjaminetan
Ugaitz Usabiaga-Eneko Mendi-
zabal. 18:00. Musika jaialdia
plazan Asteasuko Trikititxa eta
Pandero Eskola, txistu taldea

eta beste hainbat musikarire-
kin. 9:00. Herriko musikarien
kalejira. 19:30. Esku pilota parti-
dak frontoian. Pilotariak: Xabier
Urbietza, Jon Urbietza, Gaizka Iru-
retagoiena eta Julen Urruzola.
00:00. Glaukoma Sound Sys-
tem eta Lauroba taldeen kon-
tzentuak.

■ **Areso.** 09:00. Gosaria. 10:00.
Meza nagusia, eta ondoren ba-
serrietako eskea. 17:00. Joxe
Mari Mitxelenaren hitzaldia ga-
rri bateko pilota modalitateen
inguruan. 19:00. Pasaka parti-
dak. Lehendabizi guantearekin,
eta ondoren eskuz. Afalurretik.
Aurtizko trikitilariak izango dira
herriko kaleetan zehar. 21:30.
Herri afaria. Aurtizko trikitilariak
izango dira afaldu ondoren gi-
roa alaitzen.

■ **Leaburu.** 11:00. Meza nagusia
San Pedro elizan. Irteeran herri-
ko dantzarien emanaldia eta
ondoren hamaiketako herriko
Ostatuan. 15:00. Mus txapelke-
ta Zazpi Bide elkartean. 17:00.
Lizartza eta Leaburuko haurren
eta gaztetxoaren arteko futbol
partidak. 19:30. Triki-poteoa he-
rriko trikitilarietara. 20:45. Ando-
ni Otegi bidaltzeko argazkia.
21:00. Herri afaria, eta ondoren
trikitilariak. 00:00. Musika festa
batzordearen tabernan. 03:00.
II. Parrandazaleen arteko zaku
karrera.

■ **Urkizu.** 11:00. meza nagusia,
eta ondoren hamaiketako tri-
kitilarietara batera. 12:00. Ume
jolasak egun osoan. Arratsalde-
an futbol partidua, ume eta gu-

rasoen artean. 14:00. Bazkaria
Alurtxiki auzo elkartean, guraso
eta haurrentzako. 21:00. Auzo
afaria Alurtxiki elkartean, trikiti-
larietara.

MUSIKA

■ **Tolosa.** Tortura Sistematika
taldeak kontzertua eskainiko
du, 19:00etan, San Esteban au-
zoa lokaletan. CDaren aurkez-
pena egingo dute, eta lunch-a
ere izango da.

■ **Tolosa.** Tolosandblues musi-
ka jaialdiaren barruan, Solana 4
tabernan, 19:30ean, Iker Piris
trio ariko da. 22:30ean, Eugen
Hideaway bridges, Plaza Be-
rriaren, eta 00:00etan, Biga
Mama, Fronton kafetegian.

ETZI, EKAINAK 30

JAIK

■ **Asteasu.** 11:00. Meza, ondo-
ren, Aiztondo elkartea herriko
erretiratuak eskaintzen dien ha-
maiketako. 12:30. Patata torti-
lla txapelketa, eta sagardo das-
taketa Aburuza, Etxeberria, Sa-
rasola, Zabala eta Urdairaren
eskutik. 13:00. Herri kirolak Jokin
Alkizalete eta Aratz Mugerez-
kin. 14:30. Jubilatuen bazkaria
pilotalekuan, Zapre eta Zaharra
trikitilarietara, eta Telleria eta Ze-
berio bertsolariekin. 18:00. Herri

kirolak Asteasuko taldeen arte-
an. Ondoren, herriko txistularie-
kin erromeria.

■ **Larraitx.** 12:30. Meza nagusia,
eta ondoren hamaiketako eta
trikitilarietara. Arratsaldean. Berri-
ro ere trikitilariak iluntzera arte.

■ **Leaburu.** 11:00. Meza nagusia
San Pedro elizan. Ondoren, he-
rriko toka txapelketa. 12:30. III.
txakolin dastaketa, pintxoien la-
guntzarekin. 18:00. Herri kirolen
erakustaldiak. Aizkolari lanetan,
Joxe Ugarteburu eta Jon Irazu;
harri-jasotzen, Goenatxo aita-
semeak; bost metroko altueran
egurra moztzen Joxe Mari Esnao-
la; eta Iparraldeko jolasen era-
kustaldian Anje Arbenoiz, Bi-
xente Andron eta Denua Goie-
netxe izango dira.

■ **Urkizu.** 11:00etan, patata tor-
tilla prestatzea. 11:30. Sagardo
eta patata tortilla lehiaketa.
12:30. Toka txapelketa.
18:00etan. Haur jolasak eta
Bolo txapelketa.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Leidor zineman,
19:30ean, *Un amigo para Frank*
filma ikusi ahal izango da.

MUSIKA

■ **Tolosa.** Tolosandblues musi-
ka jaialdiaren barruan, Saikin 2
tabernan Big Mama formatu
akustikoan.

19-90

19-90

Euskal Herria plaza, 5 • TOLOSA • Tel.: 943 119 017

Egin HITZAREN HARPIDEDUN

ekainaren 1etik uztailaren 22ra arte,
ETA JASO:

Barrenetxe

www.barrenetxe.com

sasoiko
barazkien
otzara

Harpidedun egiten diren
guztien artean

Orduñako Aisia
hotelean,
bi pertsonarentzako
asteburu baterako
egonaldia
ZOZKATUKO DUGU

Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info